


NOLA HARTU PARTE OOGetan

Ordezkapen organo gorenean
parte hartzen duten gurasoentzako
gida praktikoa.

2021eko
edizioa



ehige 

Euskal Herriko Ikasleen
Gurasoen Konfederazioa

kai xO!

Ikastetxe publikoetako hezkuntza-komunitateen parte-hartzerako gune garrantzitsuena da OOGa. EHIGEn oinarrizko helburua da familien parte-hartze sustatu eta laguntzea OOGetan, izan ere familien parte-hartzeak, ikastetxeko gainontzeko kideekin batera, Euskal Eskola Publikoaren demokrazia dakar, baita gure seme-alaben eskola-arrakasta ere.

Horregatik, *OOGetan parte hartzen duten gurasoen gida praktikoaren* edizio eguneratu eta hobetua prestatu dugu. Zuen ikastetxean modu eraginkorrean parte hartzen lagunduko dizuelakoan gaude, baita zuen ohiko zalantzak argitzen ere.

Arkaitz Aburto Hernando
EHIGeko presidentea



aur kibi dea

OOG (Ordezkaritza-Organo Gorena) edo eskola-kontseilua /1

OOGaren osaketa. /1

OOGaren eskumenak. /3

Batzordeak: ohikoenak zeintzuk diren eta euren funtzionamendua. /3

OOGean onartu behar diren hainbat proiektu eta programa. /4

OOGaren funtzionamendua. /4

Bozketa nola egiten den. /5

OOGaren aktak. /5

Guraso-elkartea OOGan. /5

Agintaldiak zenbat denbora irauten duen eta plaza hutsak nola betetzen diren. /6

Parte-hartzea hobetzeko hainbat gomendio. /6

Beste eskola-kontseiluak: EEK, udal eskola-kontseiluak. /7

Erantzunak ohiko zalantzei. /8

Ikastetxearen dokumentuak. /10

Legeria. /11

OOG EDO ESKOLA-KONTSEILUA

Hezkuntza-komunitatea osatzen duten sektore ezberdinen partaidetza- eta ordezkari-organoren gizona da. Espazio honetan familiek, irakasleek eta ikasleek parte hartu eta Euskal Eskola Publikoaren sareko edozein eskolatan eragina duten erabakiak hartzen dituzte.

OOGaren osaketa nahitaezkoa da funts publikoak dituen eskola orotan.

OOG-AREN OSAKETA

OOGan hezkuntza-komunitatea osatzen duten kolektibo guztiak daude ordezkaturik: irakasleak, ikasleak, guraso zein tutoreak, kide bakarreko organoak (zuzendaria, ikasketaburua, idazkaria) eta abar.

Hala, OOGa, gutxienez, honako hauek osatuko dute:

- Zuzendaria, bertako presidente izango dena.
- Ikasketaburua.
- Ikastetxeko idazkaria, OOGaren idazkari arituko dena, hitzarekin, baina botorik gabe.
- Klaustroak hautaturiko irakasle kopuru zehatza, partaide guztien herena baino txikiagoa izan ez daitekeena.
- Familiek hautaturiko guraso kopuru zehatza. Guraso-elkar-teak zuzenean eta hauteskunde-prozesurik gabe izendatu ahalko du pertsona ordezkari bat OOGaren partaide izan dadin.
- Ikasleek hautaturiko ikasle kopuru zehatza (soilik bigarren hezkuntzako ikastetxeetan).

• Udalaren ordezkari bat.

• Irakasleak ez diren langileen ordezkari bat (AZP).

• Hezkuntza-arreta osagarriko langileen ordezkari bat, hezkuntza bereziko unitateak/gela egonkorak dituzten ikastetxeetan (irakasleen ordezkari osoaren barruan zenbatuko da).

Ikastetxe bakoitzeko Antolakuntza- eta Jarduera-Araudiak (AJA) zehaztuko du OOGa osatuko duten pertsonen kopurua eta guraso-, ikasle- eta irakasle-ordezkaritza kopuruak errespetatuko ditu, araudiari jarraiki.

Guraso eta ikasle-ordezkaritzaren gutxieneko ehuneko ikastetxeak ematen duen etaparen arabera izango da:

- Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak: familiek hautaturiko guraso kopurua OOGaren partaide guztien % 50 izango da. Hezkuntza-etapa honetan ikasleek ez dute ordezkariarik.
- Bigarren Hezkuntza/Batxilergoko ikastetxeak: etapa honetatik aurrera, ikasleek ordezkari dute. Horrela, guraso kopurua murriztu egiten da eta ikasle kopurua, berriz, igo. Bi kolektibo horien batura OOGaren partaide guztien % 50 izango da.
- Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak (IPI): ikastetxe horietan ikasleek ere ordezkari dute, eta horien eta familien batura % 50 da.

OOGan gonbidatuek eta hezkuntza-komunitatearen parte ez diren pertsonen parte har dezakete, laguntzaile edo aholkulari gisa gai-zerrendako gai jakin batean esku hartzeko. Aktan jaso behar da bilkuran parte hartu izana.



Ikastetxe bakoitzeko Antolakuntza-
eta Jarduera-Araudiak (AJA) zehaztuko
du OOGa osatuko duten
pertsonen kopurua



Ikastetxe mota

	Haur eta lehen hezkuntza				Bigarren hezkuntza				Ikastetxe integrala				Bigarren hezkuntza + batxilergoa				Batxilergoa	
	Gutxienez 13 irakasle duten ikastetxeak	13 irakasle baino gutxiago duten ikastetxeak	Gutxienez 13 irakasle duten ikastetxeak	8 irakasle baino gehiago eta 13 baino gutxiago duten ikastetxeak	Gutxienez 13 irakasle duten ikastetxeak	8 irakasle baino gehiago eta 13 baino gutxiago duten ikastetxeak	Gutxienez 13 irakasle duten ikastetxeak	8 irakasle baino gehiago eta 13 baino gutxiago duten ikastetxeak	Gutxienez 13 irakasle duten ikastetxeak	8 irakasle baino gehiago eta 13 baino gutxiago duten ikastetxeak	Gutxienez 13 irakasle duten ikastetxeak	8 irakasle baino gehiago eta 13 baino gutxiago duten ikastetxeak	Gutxienez 13 irakasle duten ikastetxeak	8 irakasle baino gehiago eta 13 baino gutxiago duten ikastetxeak	Gutxienez 13 irakasle duten ikastetxeak	8 irakasle baino gehiago eta 13 baino gutxiago duten ikastetxeak		
Zuzendaria	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1		
Ikasketa-burua	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1		
Idazkaria	1*	1*	1*	1*	1*	1*	1*	1*	1*	1*	1*	1*	1*	1*	1*	1*		
Irakasleak	10**	Ikastetxeko irakasle guztiak	10**	6**	10**	6**	10**	6**	10**	6**	10**	6**	10**	6**	10**	6**		
Gurasoak	15	Gainontzeko kideak beste guraso/tutore	11	8	12	9	9	9	9	7	7	7	7	7	7	5		
Administrazio eta Zerbitzuetarako ordezkaria	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1		
Udaletxearen ordezkaria	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1		
Ikasleak	-	-	4	3	3	2	6	4	8	6	4	8	6	4	8	6		

*Idazkaria, hitzarekin eta boturik gabe

**Gela-egonkorren irakaslea barne, egongo balitz

OOG-AREN ESKUMENAK

Ikastetxe bakoitzeko OOGak honako eskuduntzak ditu:

- Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektua (IHP), Ikasketa-Proiektua eta Hizkuntza-Proiektua onartu.
- Antolakuntza- eta Jarduera-Araudia (AJA) onartu.
- Ekonomia-Kudeaketarako Proiektua onartu.
- Ikastetxearen Bizikidetzeta-Plana onartu.
- Ikastetxearen Urteko Plana onartu. Plan horrek honakoak hartzen ditu bere barne:
 - Irakaskuntza-jardueren Programa.
 - Prestakuntza-Plana.
 - Eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien Programa.
 - Ekonomia-Kudeaketarako urteroko Programa.
- Ikastetxearen urteko memoria onartu.
- Bizikidetzeta arloko neurri zuzentzaileak ezagutu eta, hala badagokio, berrikusi, betiere, ikasleen eskubide eta betebeharrak zehazten dituzten araei jarraiki.
- Ikastetxeko ikasleen onarpenari buruzko erabakiak hartu, betiere, indarrean dagoen legeriari estuki jarraiki.
- Beste ikastetxe batzuekiko harremanak sortu, helburu kultural eta hezitzaileekin.
- Eskolako instalazioen eta ekipamenduen zaharberritzea bultzatu, baita horien zaintza ere.
- Ikastetxeak administrazio- eta irakaskuntza-kontuetan duen jarduera orokorra ikuskatu.
- Ikastetxearen ordutegia eta egutegia onartu.
- Irakasle ez den OOGaren partaide bat aukeratu, ikastetxearen zuzendaritza-proiektua balioztatuko duen batzordean parte hartzeko (1)*.
- Ikastetxeko jangelako antolakuntza eta funtzionamendu-ildo nagusiak onartu.
- Jangelako kudeaketa ekonomikoa kontrolatu eta bazkaltzarren ordainketen maiztasuna eta ordainketa-modua onartu.
- Material didaktikoak eta curriculumak garatzeko baliabideen kudeaketa-programaren antolakuntza- eta funtzionamendu-ildo nagusiak onartu.
- Proiektu eta programetan parte hartzea onartu (Sare Hezkuntza Gelan, Bidelaguna, Hamaika Esku, Eskola Bidea, etab.).
- Euskal Eskola Publikoaren Legeak (1/1993 Legea), beste

arau batzuek edo ikastetxearen Antolakuntza eta Jarduera Araudiak ematen dioten beste edozein eskumen. OOGa osaturik, horrek pertsona bat aukeratuko du, gizon eta andreen arteko zinezko berdintasun eraginkorra sustatuko duten neurri hezitzaileak bultzatuz.

BATZORDEAK: OHIKOENAK ZEINTZUK DIREN ETA EUREN FUNTZIONAMENDUA

Betebehar horiek betetzeko, OOGak hainbat batzorde era dezake (ikastetxe bakoitzaren AJA zehazturikoak).

Ikastetxe guztietako OOGek nahitaez izan beharreko batzordeak honakoak dira:

- 1.- Batzorde iraunkorra.
- 2.- Ekonomia-batzordea.

Batzorde iraunkorra

Honakoek osatuko dute: zuzendaria, ikasketaburua, irakasle kopuru zehatza, guraso kopuru zehatza, ikasle kopuru zehatza (bigarren hezkuntzan/IPIetan) betiere OOGko ordezkariak proportzioak errespetatuz, eta idazkaria (hitzarekin, baina botorik gabe).

Bere eskumenen artean daude OOGren bileren gai-zerrenda proposatzea (2)* eta zuzendaritzari laguntzea Kudeaketa-Proiektuarekin, ikastetxeko prestakuntza-jarduerekin, eskolaz kanpoko jarduerekin eta jarduera osagarrien programa, AJA eta urteko memoriaren zirriborroa egiten.

Ekonomia-batzordea

Honakoek osatuko dute: zuzendaria, idazkaria (hitzarekin baina botorik gabe), ikasketaburua, irakasle kopuru zehatza, guraso kopuru zehatza eta, azkenik, udalaren ordezkaria.

Bere betebeharren artean honakoak daude: ikastetxearen urteroko Kudeaketa-Programa eta urteroko balantzea landu eta ikuskatu.

Ikastetxeak ondo funtzionatzeko beharrezkotzat jotzen diren nahi beste batzorde sor daitezke, adibidez:

Jangelak-batzordea

Honakoek osatuko dute: zuzendaria (Batzordeko presidentea izango dena), jangela-arduraduna, ikasle kopuru zehatza (DBHko lehen ziklotik aurrera) eta jangela erabiltzen duten ikasleen gurasoak, OOGak adosturikoak. (Jangela partekatu bada, partekatzen duten ikastetxeetako zuzendariak hartuko dute parte.)

Bere betebeharren artean honakoak daude: jangelako aurrekontua egin, arduradunari administrazioan lagundu, OOGari menuak proposatu, jangela-zerbitzua ebaluatu eta OOGari hobekuntzak proposatu (3)*.

Bizikidetzeta-batzordea

Komeni da batzorde hori sortzea, honako hauek osatua: hezkuntza-sektoreetako ordezkariak eta ikastetxeko Bizikidetzaren Behatokiko kideak, bai eta berdintasunaren

1* 262/2017 Dekretua, abenduaren 5ekoa, zuzendaria hautatzeko dekretua aldatzen duena (4. artikulua).

2* 82/1986 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetako gobernu-organoen osaera eta eginkizunak arautzen dituena (22. artikulua).

3* 2000ko martxoaren 22ko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako derrigorrezko hezkuntzako eta haur-hezkuntzako (2. zikloa) jantokiak arautzen dituena.

eta hezkidetzaren arduradunak ere. Batzorde horren esku utz daiteke ikasleen eskubideei eta betebeharreri buruzko 201/2008 Dekretuaren ondoriozko jokabide-prozedura zuzentzaileei buruz Ordezkaritza Organo Gorenean egindako erreklamazioak berrikustea. Kasu horretan, horri buruz erabakiko dutenek OOGko kide izan behar dute, eta erabakiak gehiengoz hartu, boto haztatuaren sistema erabiliz (4)*.

Haren funtzionamendua AJAn jaso behar da, haren antolaketa, osaera, erreferentzia gisa balio dion arau-multzoa eta baliabideak adierazita.

Batzordeetan harturiko erabaki guztiak OOGak berretsi beharko ditu.

OOGan estamentu bakoitzak duen ordezkaritza hartu beharko da kontuan Batzordeetako bozketetan. Erabakiak hartzeko gehiengoa beharko da, boto haztatua erabilia (5)*.

Gainera, OOGko ordezkarien parte-hartzea eska dezaketen ikastetxeko hainbat batzorde daude, hala nola:

Material didaktikoak eta curriculumak garatzeko baliabideen Batzordea.

Honakoek osatuko dute: zuzendaria edo horrek eskuorde-turiko inor, ikastetxeko idazkaria (Batzordearen idazkaritza izango dena), gurasoen bi ordezkarikari (bata OOGaren kidea eta horrek proposaturikoa eta bestea IGEak proposaturikoa) eta Lehen Hezkuntzako koordinatzaileak eta/edo DBHko koordinatzailea.

Bere betebeharren artean honakoak daude: OOGra ikastetxeak erabiliko dituen materialen proposamena eramanean (Koordinazio Pedagogikorako Batzordeak eginkoia), prozedura eta erosketa-puntuak proposatu, zerrendak ikuskatu eta araudia betetzen dela egiaztatu, familiei maila bakoitzeko ikasturte bakoitzean ikastetxeak erabiliko dituen material didaktikoak eta curriculumak garatzeko baliabideak jakinarazi.

OOG-EAN ONARTU BEHARREKO PROGRAMA ETA PROIEKTU BATZUK

• **Sare Hezkuntza Gelan.** Baliabide digitalekin irakasteko eta ikasteko berrikuntza-proiektua da lehen hezkuntzako, bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikastetxeentzat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak urtero deitzen du, eta irakasleentzako prestakuntza-jarduerak, lizentziak/curriculum-materialak eta ikastetxerako gailuak diruz laguntzen ditu. Gainera, ikastetxe publikoei lanaldi erdiko ordu-kreditua ematen die.

Irakasleen klaustroak eta OOGk onartu behar dute parte-hartzea.

• **Bidelaguna.** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren aniztasunari erantzuteko programa da. Eskola-orduetatik kanpoko laguntza da, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetakoa eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailetakoa ikasleentzat.

Parte-hartzea OOGk onartu behar du.

• **Hamaika Esku.** Aniztasunari arreta emateko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren programa bat da, eta ebaluazio diagnostikoetan (PISA, diagnostiko-ebaluazioak) lortutako emaitzetan hasierako mailan dauden ikasleen ehunekoa murriztea du helburu.

Parte-hartzea OOGk onartu behar du.

• **Hauspoa.** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoen barne-antolaketa berritzeko proiektua da. Bertan, eskola-orduak goizeko orduetara kontzentratzen dira eta arratsaldeak prestakuntza-jarduerara osagarrietara bideratzen dira.

Irakasleen klaustroak, OOGk eta guraso-elkarteak onartu behar dute parte-hartzea.

OOG-AREN FUNTZIONAMENTUA

OOGren bilerak kide guztiei bertaratzeko aukera ematen dien egunean eta ordutegian egingo dira. OOGk ohiko edo ezohiko bilerak egingo ditu.

Ikastetxeko zuzendariak egingo ditu deialdiak, bai ohiko bilkurakoak, bai bilkura berezikoak, edo, kideen herenak hala eskatzen bada, gutxienez 48 ordu lehenago, betiere parte-hartzaile guztien ezagutza eta bertaratzzea bermatzen bada.

OOGren deialdia eskatu nahi baduzue, presidenteari (zuzendariari) idatziz egitea gomendatzen dizuegu, eskaera egin duten kontseilarien sinadurarekin eta aztertu beharreko arrazoiak eta gaiak azaldu.

Quorum-a izateko, beharrezkoa da presidentea, idazkaria edo haren ordezkariak eta OOGko kideen erdiak bertan egotea.

Zuzendariak OOGko parte-hartzaileei bidaliko dizkie deialdiak, bileraren gai-zerrendarekin eta eztabaidatuko den dokumentazioarekin batera, eta, hala badagokio, gai-zerrendako gaien onarpena ere bai. Prozedura hori ez betetzeak erabakien aurkara-tzea ekar dezake, eta, beraz, deuseztasuna. (6)*.

Saioak aurrez aurrekoak izatea gomendatzen badugu ere, administrazio-prozedurak aukera ematen du saioak urrutitik (*online*) egiteko, betiere parte-hartzaileen identitatea, adierazpenen edukia, noiz gertatzen diren eta haien arteko komunikazioa ziurtatzen bada (7)*.

4* Ikastetxeko bizikidetzaren plana egiteko gida. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.

5* Boto haztatua: botoa ematen duen pertsonak ordezkatzen duen taldeko kide adina boto ordezkatzen dituen bozketaren sistema. Sistema hori eskola kontseiluan sortzen diren batzordeetako bozketetan erabiltzen da, eta batzorde horietako bozketetan berdinketak ebazteko.

6* 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena (19.3.a artikulua).

7* 40/2015 Legea, urriaren 1eko, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena (17.1 artikulua).

Ohiko bilkura

Ohiko bilkura ikasturtean zehar nahitaez eta gutxienez bitan egingo da. Dena dela, ikastetxean hartu beharreko erabaki askok OOGaren onespena behar duela kontuan harturik, gutxienez, behin bildu behar luke ikasturteko hiruhileko bakoitzeko.

Ikastetxe bakoitzaren AJAk zehaztuko ditu OOGaren saioen deialdiarako epeak. Administrazio-prozedurak dio astebetekoa baino epe motzagoa izan daitekeela, baina luzatzea gomendagarria dela uste dugu, jasotako dokumentazioa aztertzeko behar adina denbora izateko eta eztabaida egoki egiteko.

Bilkura berezia.

OOGak **bilkura berezia** egingo du, presako gairen bat izanez gero. Kasu horretan, gai-zerrendan soilik presako gaia(k) sartuko d(ir)a.

BOZKETA NOLA EGITEN DEN

OOGak gehiengo soil ez lortuko ditu akordioak, hau da, bozka- tzean bertan dauden pertsonetatik gehienek bozkatutako aukera. Adibidez:

- Ikastetxearen egutegiaren kasuan, gehiengo soil ez onartuko da egutegia, baldin eta egutegian aldaketa esanguratsurik gertatzen ez bada.

- Orduetgia aldatzen bada (arratsalde bat irakasleen prestakuntzara bideratzeko haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan).

Badira **salbuespen batzuk**:

- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, Urteko Plana eta AJA eta haren aldaketak gehiengo osoz onartu behar dira. Hau da, Ordezkaritza Organo Gorena osatzen duten kide guztien erdia gehi bat, gutxienez.

- Orduetgia aldatzen bada (prestakuntzaren kasuan izan ezik), proposamena irakasleekin, ikasleekin eta ikastetxeoko gurasoekin kontsultatu behar da, eta sektore horietako bakoitzean onartu behar da, emandako botoen 2/3ko gehiengo kualifikatuarekin eta gutxienez eroldaren % 50eko parte-hartzearekin. Proposamena ikastetxeoko OOGren gehiengo osoz onartu behar da, eta hurrengo ikasturteko matrikulazio-aldia baino lehen onartu behar da.

Presidentearen botoa erabakigarria izango da berdinketa kasuan.

Bakarrik gai-zerrendan ageri diren puntuak eztabaida eta ados daitezke, OOGa osatzen duten kide guztiak bertaratu direnean eta gehiengoak gai bat presakoa dela erabaki duenean salbu.

Argi ikusten ez dugun edo legezkotasunarekin bat ez datorren zerbait proposatzen bada bozketara, gogoratu aurkako botoek edo abstentzioek, aktan jasota badaude, kasuan kasu sor daitezkeen erantzukizunetatik salbuesten gaituztela. **(8)***.

OOGn ez dago botoa ordezkatzetik.

Boto partikularra:

Gehiengoaren erabakiarekin bat ez datozen kideek boto partikularra eman ahal izango dute idatziz, bai eta botoaren esanahia eta arrazoiak adierazi ere. 48 orduko epea dugu Ordezkaritza Organo Goreneko Idazkaritzari emateko eta aktan hitzez hitz jasotzeko **(9)***.

OOG-AREN AKTAK. NOLA IDATZIZI?

OOGaren idazkaria izango da saio bakoitzeko akta jasotzeko arduraduna. Akta horretan bertaraturikoen zerrenda (izen-deiturekin), OOGan duten kargua eta bilera egin den lekua eta unea (urtea, hilabetea, eguna eta ordua) azalduko dira.


Eztabaidako puntu nagusiak, bozketen emaitza eta bozketak egiteko modua (publikoki ala sekretuki, txartel bidez ala eskua altxatuta) ere agertuko dira aktan. Azkenik, garrantzitsuena, **adosturiko akordioaren edukia agertuko da**.

Era berean, kide orok beraren hitzartzearen transkripzio osoa eskatzeko eskubidea du eta hala jasoko da aktan edo kopia atxikiriko da bertan.

Idazkariak sinatu behar ditu aktak, presidentearen oniritziarekin. Idazkariak bitarteko elektronikoaren bidez igorriko dizkie OOGko kideei, eta horiek bide berberaren bidez adierazi ahal izango dute testuarekin ados dauden ala ez, onar dezaten. Gainera, interes legitimoa egiaztatzen duen edonork (hezkuntza-komunitateko edozein kide) hartutako erabakien kopia eskatu ahal izango du **(10)***.

Gehiengoak adosturikoarekin ados ez dagoen orok idatzizko boto partikularra eman ahal izango du, bi eguneko epean, onarturiko testura eransteko.

Gomendagarria da OOGren akordioak hezkuntza-komunitateko kide guztiek ezagutzea.



8* 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena (16.6 artikulua).

9* 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena (19., 3., c eta 5. artikulua).

10* 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena (18.2 artikulua).

GURASO-ELKARTEA OOG-N

Guraso-elkarteak ordezkari bat izenda dezake zuzenean OOGko berezko kide gisa, hauteskunde-prozesuan parte hartu gabe, hitz egiteko eta botoa emateko eskubidearekin, ikastetxeko zuzendariari hautagaitzak aurkezteko epea hasi baino lehen jakinarazita, eta izendatutako pertsonaren izena adierazita. Izendapen hori egiten ez bada, ohiko hauteskunde-prozesuan beteko da plaza hori.

Pertsona horren eginkizunetako bat OOGko parte-hartzea koordinatzea izan daiteke, eta, horretarako, deialdiaren aurretik familien ordezkariekin bilera bat egitea gomendatzen dizuegu. Guraso-elkarteak izendatutako pertsona hori ez baduzue, gomendatzen dizuegu Ordezkaritza Organo Goreneko familietako ordezkariak guraso-elkartearekin biltzea, elkartearen ustez ikastetxearen funtzionamendua hobetzeko garrantzitsuak diren alderdiak jorratzeko.

Ordezkaritza Organo Gorenean, gurasoen ordezkariak gai kolektiboak edo banakakoak planteatuko dituzte, ikastetxeko familia guztien ordezkariak beren gain hartzen dutelako. Inola ere ez dira norberaren interesak sustatuko.

AGINTALDIAK ZENBAT DENBORA IRAUTEN DUEN ETA PLAZA HUTSAK NOLA BETETZEN DIREN

Bi urtean behin, elkargokideen erdiak berritzen dira, eta, horretarako, dagokion hauteskunde-prozesua egingo da.

Agintaldiak irauten duen bitartean bajaren bat gertatzen bada, hauteskunde-zerrendako ordezkarekin beteko da plaza. Ordezkorik ez baduzue, plaza hutsik geratuko da. Horregatik, **komeni da guraso-elkarteek, hauteskunde-zerrendak egiterakoan, berritu beharreko plazak baino hautagai gehiago aurkeztea.**

Agintaldiaren iraunaldia amaitu baino lehen guraso-elkarteak izendatutako pertsonaren plaza hutsik geratzen bada, guraso-elkarteak ordezkari berri bat izendatuko du. Izendapena bi hilabeteko epean egiten ez bada, egindako azken hautaketari dagokion gurasoen ordezkarietako ordezkoren zerrendan lehenengo agertzen den pertsonak beteko du postu hutsa.

Ordezkapen Organo Gorenean ordezkari gisa sartu diren pertsona guztiei baja ematen zaie hauteskunde-prozesu bat gertatzen denean, hau da, haien postua hauteskundera ateratzen denean.

HAINBAT AHOLKU PARTE-HARTZEA HOBETZEKO

Bilerak

Ohikoa da bilerak oso praktikoak ez izatea, eta parte-hartzaileek gauza zehatzetara iritsi ez direlako eta akordiorik lortu ez dutelako sententzioa izatea. Ildo horretan, bilerak eraginkorrak izan daitezten eta gure helburuak lortzen lagun diezaguketen alderdi batzuk kontuan hartzea komeni da.

Bileraren aurretik:

- Gai-zerrenda eta adostu edo eztabaidatu beharreko dokumentazioa ezagutu.
- OOGeko ordezkarien eta IGEaren batzordearen arteko bilera planifikatu, gai-zerrenda eta dokumentazioa edota OOGrako nahiz bertako batzordeetarako estrategiak aztertzeko.
- Egin litezkeen proposamenak prestatu eta, behar balitz, horretarako aholkularitza bilatu.

Bileran bertan:

- Iritziak argi eta motzeari azaldu, beti gure proposamenak laguntzeko dokumentazioa aurkezturik.
- Ez sartu polemika antzuetan, ezta liskar pertsonaletan ere.
- Beharrezkoa den guztia galdetu.
- Proposamen edo iritzi garrantzitsuenak defendatzeko eskura dagoen dokumentazioa aurkeztea.
- Gure esku-hartzea aktan jasotzea nahi badugu, idatziz eramatea eta idazkariari ematea komeni da.
- Erabakiren bat hartzeko denbora luzeagoa behar izanez gero, etenaldia eska dezakegu bileran.

Bileraren ondoren:

- Elkartearen zuzendaritza batzordea eta ikastetxeko familiak informatzeko, adosturiko akordioak idatzi.
- Bilera eta horren emaitzak kolektiboki balioztatu.
- Eginiko ekarpenak eta adosturiko akordioak jasota dituen aktaren ziurtagiria eskatu.



Ordezkapen Organo Gorenean ordezkari gisa sartu diren pertsona guztiei baja ematen zaie hauteskunde-prozesu bat gertatzen denean



Proposamenak

Parte hartzeko orduan kontuan izan behar dugun beste alderdi bat proposamenak egiteko dugun gaitasuna da, hezkuntza-komunitateko kide garen aldetik. Hona hemen gomendio batzuk, modurik zehatz eta egokienean egin ahal izateko:

- Proposamena argi eta labur adieraztea.
- Argi izatea proposamenari eusten dion argudioa.
- Proposamenak idatziz aurkeztea.
- Jarriko diren trabak eta zailtasunak aztertzea, gainerako parte-hartzaileen lekuan jarrita.
- Kontraargudioak eta dokumentazio osagarria prestatzea.
- Proposamen alternatibo negoziagarriak prest izatea, maximoetan eta minimoetan oinarrituta.
- Bileraren estrategia diseinatuta edukitzea: atsedendialdiak eskatuko diren, puntua atzeratzea eskatuko den, horri uko egingo zaion.

Adostasunak

OOGrik eraginkorrenak gutxieneko bozketekin akordioak lortzeko gai direnak dira, gehiengo edo gutxiengoekin konpontzen direnak. Garrantzitsua da adostasunak lortzea, eta, horretarako, jarraibide batzuk aurkezten dizkizuegu:

- Besteen planteamenduak entzutea.
- Jarrera malguak mantentzea.
- Proposamen baten ondoren, estamentu guztiak partzialki asebeteko dituzten formula partzialak aurkitzen jakitea.
- Kontuan izan OOGn gehiengoa eta gutxiengoa alde aurretik ezarrita daudela.
- Argi izatea parte hartzea erabakiak hartzean aktiboki esku hartzea dela.

Komunikazioa

Escola-kontseilu bateko ordezkarien betebeharrak bat ordezkatzeko dituzten pertsonen behar bezalako informazioa ematea da. Garrantzitsua da aurretik iritziak jasotzea, eta garrantzitsua da, halaber, gertatutakoaren berri ematea eta zer ondorio atera diren jakinaraztea. Gai horietan oso "panfletarioak" izateko arriskua dugu, eta gure ordezkariak interesa pixka bat galtzea. Horregatik, jendea doktrinatzetik eta balorazio labur eta laburren bidez informatzetik ihes egin behar dugu.

Komunikazioak atal hauek izatea gomendatzen dizuegu, publiko egiten duzun formatua edozein dela ere (guraso-elkarteen taula, mezu elektronikoak, aplikazioa, sare sozialak, etab.):

- OOGren gai-zerrendako puntuak.
- Guk hainbat punturen aurrean genuen jarrera.
- Zer ondoriotara iritsi den.
- Saioaren garapenari buruzko balorazioak.
- Ebatzi gabe dauden gaiak.

BESTE ESKOLA-KONTSEILU BATZUK: EEK, UDAL-ESKOLA-KONTSEILUAK

Euskadiko Eskola Kontseilua

EEKa unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren programazio orokorrean inplikaturako gizarte-sektoreen partaidetzarako organo gorena da, baita Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-arloan proposatu beharreko araudiari buruzko kontsulta eta aholkularitzarako organo gorena ere.

Besteak beste, honako eginkizun hauek ditu: EAEko irakaskuntza arautzen duten arauen aurreko irizpenak egitea, irakaskuntza horren egoerari buruzko txostena egitea eta bere ekimenez egindako beste txosten batzuk egitea.

41 kide ditu, horien artean 3 ikastetxe publikoetako gurasoen federazioek izendatuak.

Udal eskola-kontseiluak

Udal-eremuan unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren programazioan inplikaturako gizarte-sektoreen partaidetza, kontsulta- eta aholkularitza-organok dira.

EAEEn gutxienez bi daude: Bilboko udal eskola kontseilua eta Gasteizko udal kontseilua. Biek dute ikastetxe publikoetako guraso-elkarteen ordezkartza.

OOG-AREN BILERETARAKO GUTXI GORABEHERAKO GIDA

1. bilera (iraila / urria)

- Ikastetxearen Urteko Plana onartzea (irakaskuntza-, prestakuntza- eta eskolaz kanpoko jardueren plana, etab.)
- Aurreko ikasturteko memoria onartzea, ikasturtea amaitzean egin ez bada.
- Kultura- eta kirol-jardueretan eta beste erakunde batzuekiko lankidetzaren harremanetan parte hartzeko irizpideak definitzea.
- Proiektuak edo planak onartzea, hala badagokio.
- Ikasleak onartzeko irizpideak ezartzea (zonifikazioa, OOGaren puntuazioa, etab.)

2. bilera (otsaila / martxoa)

- Ikastetxearen Urteko Planaren jarraipena egitea.
- 1. eta/edo 2. ebaluazioaren emaitzak aztertzea eta hobekuntza-planak ezartzea, beharrenean arabera.
- Instalazioak berritzeko beharrak aztertzea eta dagozkion eskaerak egitea.
- Jantokiaren funtzionamendua ebaluatzea (menua baloratzea, enpresa kudeatzaileari eta Hezkuntza Administrazioari hobekuntza-proposamenak egitea, etab.)

3. bilera (maiatza / ekaina)

- Ikasturtea ebaluatzea eta memoria onartzea, hala badagokio.
- 2. eta/edo 3. ebaluazioaren emaitzak aztertzea eta hobekuntza-planak ezartzea, hurrengo ikasturterako beharrenean arabera.
- Kanpoko ebaluazioaren emaitzak aztertzea (baldin badaude) eta hobekuntza-planak ezartzea, beharrenean arabera.
- Ikastetxearen ordutegia eta egutegia onartzea.
- Ikastetxearen etorkizuneko proiektuak eta planak programatzea eta, hala badagokio, onartzea.
- Curriculuma garatzeko material didaktikoaren eta baliabideen programaren antolamendu- eta funtzionamendu-jarraiabideak onartzea.



Erabaki garrantzitsuak bakarrik irakasleen klaustroan hartzen al dira?

Ez, jakina. OOGari dagokio ikastetxearen bizitzaren konturik garrantzitsuenak erabakitzea. Horregatik, familiak hezkuntzan inplikatzeko, parte hartzea eta beraien seme-alaben hezkuntza hobetzeko adosturiko proposamenak aurkeztea garrantzitsua da.

OOGak soilik bi batzorde izan behar ditu?

Ez, egokitzat jo adina batzorde era daiteke.

Zer jaso behar da OOGaren aktan?

Saio bakoitzeko akta jasoko da. Bertan bilerara bertaraturikoen izenak, lekua eta iraupena agertuko dira. Era berean, erabakiaren puntu nagusiak, bozketa-modua eta horien emaitza, akordioetako edukiak eta, izatekotan, boto partikularrak jasoko dira.

Izan al daiteke boto partikularrik? Zertarako balio du?

OOGko edozein kidek aktan jaso ahal izango du hartutako erabakiari emandako botoaren azalpena eta hori justifikatzen duen arrazoia. OOGren akordio batekin ados ez dagoela jasota geratzeko balio du.

Zer da boto haztatua?

Boto haztatuak batzordeko pertsonen pisua OOGan duten bera izatea dakar. Batzorde guztietan erabiltzen da boto haztatua.

Presidentetza bertaratu ezin bada, nork beteko du kargua?

Presidentea edo idazkaria bertaratu ezin bada, kargu zaharrenak ordezkatzeko du presidentea eta gazteenak idazkaria. Partaide guztiek antzinasun bera izanez gero, pertsonarik adinekoena edo gazteena izango da.

Eta, quorum-ik ez bada?

Quorum-a izateko, zuzendaria, idazkaria (edo euren ordezkariak) eta OOGa osatzen duten kideen erdia da beharrezkoa. Quorum-ik izan ezean, OOGa bigarren deialdian eratuko da, lehen deialdia baino 24 ordu geroago. Horretarako, nahikoa izango da partaideen herena bertaratzeko eta, ezinbestean, hiru baino gutxiago ez izatea.

Nork erabakiko du bozketa, berdinketa kasuan?

Berdinketa kasuan, OOGaren presidentetzaren botoa izango da erabakigarria.

Zer gertatuko da familiak gutxiengo badira?

Erabakiak berdin-berdin har daitezke, nahiz gurasook ordezkariarik ez izan.

Ikastetxeko plana eta memoria nahitaez onartu behar dira?

Hain zuzen ere, ikastetxe orok plana eta memoria izan behar du. Ados egon ezean, ez da zertan egiten den lehen OOGan onartu.

Ideiak argitzeko edo gurasoen arteko erabaki adostua hartzeko etenaldia eska al daiteke?

Bai, jakina. Uneren baten inork zalantzarik izanez gero eta ideia bat argitu behar bada, edozein estamentuk eska dezake etenaldia.

Nola onartuko dugu ikastetxeko plana, ezaguna ez badugu?

Zuzendariak OOGaren partaideei eztabaidagai izango den dokumentazioa bidali beharko die, aurretiaz eta partaideek jasotzeko moduan.

Nola egin proposamenak OOGan?

Batzorde-iraunkorraren bitartez edo OOGaren presidenteari bidalita, horrek gai-zerrendan txerta dezan.

Kontu pertsonalak planteatu al daitezke OOGan?

OOGak ez dira gurasoen ordezkariak kontu pertsonalak planteatzeko, baizik eta izaera kolektibo zein indibidualeko interesak babesteko eta ikastetxeko familia guztien ordezkariak gainean hartzeko.

OOGaren bilerak eskola-ordutegian egin behar dira?

Ez, bilerak OOGa osatzen duten kide guztiak bertaratzeko erraztuko duen ordutegian egin behar dira.

OOGaren akordioak aurkara al daitezke?

Bai, betiere, honako egoera hauetako batean: lege kontrakoak badira, OOGaren beraren araudiaren aurkakoak badira, hezkun tza-araudiaren kontrakoak badira edo bertan parte hartzen duten pertsonen nahiz ordezkariak duten kolektiboaren interes eta eskubideen aurka eginez gero.

OOGaren partaideek euren arduraren salbuetsi dezakete kontrako botoa edo abstentzioa aktan jasota.

Posta bidez bozka daiteke OOGn?

Ez, kontraesana litzateke, bertaratzeko derrigorrezkoa delako.

Zein da jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren arteko aldea?

Jarduera **osagarriak** dira eskola-orduetan ikasleekin egiten diren jarduera didaktikoak, ikastetxeak antolatzen dituenak eta ikasle guztientzat nahitaezkoak direnak: gelatik kanpoko jarduerak, barnetegiak, hezkuntza-kanpaina bereziak...

Eskolaz kanpoko jarduerak dira curriculumarekin lotura zuzenik ez dutenak, eskola-denboratik kanpo egiten direnak eta parte-hartzea borondatezkoa dutenak.

Batzorde-iraunkorrek osoko bilkura ordezkatu dezake?
Ez, inoiz ez. Urgentziarik balego ordezkatu dezake baina ondoren osoko bilkura informatu beharko du.

Batzorde-iraunkorrean hartutako erabakiak osoko bilkura batean berretsi behar dira?

Bai, ikastetxeko AJAan jasotakoaren arabera OOGak iraunkorraren esku uztea erabaki duen gaiak ezik (gai hauek bigarren mailakoak izaten dira). Gogoratu iraunkorreko botoak haztatuak direla, hau da, sektore bakoitzak OOGan duen pisuaren arabekoak.

Gurasoen estamentuak ezohiko OOGa deitu dezake?

Ez, ezein estamentuk ezin du OOGren deialdi arrunta edo ezohikoa egin. Presidentziak (zuzendaritzak) egiten du deialdia. Presidenteari Ordezkaritza Organo Gorena deitzeko eskatzeko, kontseilarien herena izan behar da, gutxienez 48 ordu lehenago.

Publiko egin dezakegu OOGren akta? Nola jakinarazten zaizkie familiei OOGren erabakiak?

Ez, baina oso garrantzitsua da hartutako erabakiak familiei jakinaraztea guraso-elkarteak dituen ohiko bitartekoen bidez. OOGko idazkariak akta kontseilariari eman behar die.

Ordezkapen Organo Gorenean ordezkari gisa sartu diren pertsonak berriro aukeratu edo izendatu behar dira?

Bai, ikasturtean zehar kontseilari bat ordeztu duten pertsonak kargua utziko dute hurrengo hauteskundeetarako deia egiten denean, eta beren postua hautapenera aterako da.

Ama eta irakaslea naiz ikastetxe berean. Aurkeztu naiteke Ordezkaritza Organo Gorenera?

Bai, noski, baina ez da gomendagarriena, interes-gatazka sor baitezake. Nolanahi ere, argi utzi beharko dut zein estamenturen ordezkari izango naizen.

Guraso-elkarteak Ordezkaritza Organo Gorenean duen ordezkariak ezin badu bilera batera joan, guraso-elkarteak beste ordezkari bat bidal dezake?

Ez, OOGko kide batek ere ezin du pertsona bat bidali haren ordezkari gisa.

Botoa Ordezkaritza Organo Goreneko beste kide baten esku utz dezaket?

Ez, OOGn ez dago boto-eskuordetzarik.

OOG

IKASTETXEAREN DOKUMENTUAK

Dokumentuaren
izena

Zer da

Nork egiten du

Nork onartzen du

Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektua (IHP)	Dokumentu integral eta globala da, ikastetxearen ezaugarrien azterketa kontuan hartuta, ikastetxearen identitatea, balioak, printzipioak eta helburuak identifikatzen dituen eta horiek nola lortu adierazten duena.	Hezkuntza-komunitateak	OOGak
Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua	Hizkuntzen irakaskuntzarekin eta erabilerarekin lotutako alderdi guztien plangintza jasotzen duen dokumentua da. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan jasotako ikaskuntza-prozesuan hizkuntzak irakasteko eta erabiltzeko irizpideak garatzen ditu, eta Curriculum Proiektuan hizkuntzen tratamendua zehazten du.	Zuzendaritza eta irakasleen klaustra, hezkuntza-komunitatearen laguntzarekin	OOGak
Ikastetxearen Curriculum Proiektua (ICP)	Ikastetxe bakoitzak bere testuinguruan garatzeko eta osatzeko egiten duen curriculumaren osagaien plangintza da. Gutxienez, honako zehaztapen hauek jaso behar ditu: <ul style="list-style-type: none"> • Irakaskuntzako konpetentziak, helburuak eta edukiak, ikasleen premietara egokituak, irakaskuntzaren alderdi guztietan. • Ziklo edo ikasturte bakoitzeko ebaluazio-irizpideen zehaztapena, etapa bakoitza amaitzean gaitasunak eskuratzeko gutxieneko mailak, eta ebaluazio- eta mailaz igotzeko prozesuari buruzko erabakiak. • Bere hizkuntza-proiektuaren curriculum-alderdiak. • Irizpide pedagogikoak eta didaktikoak, aukera metodologikoak eta curriculum-materialak zehaztea, ikastetxeko irakasleen zereginaren jarraitutasuna eta koherentzia bermatzeko. • Hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleen tratamendu integralerako irizpideak, bai hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak, bai banakako gaitasun handiak dituztenak, bai hezkuntza-sisteman berandu sartzen direnak. • Aukerakotasunari eta curriculum-aniztasunari buruzko erabakiak. • Tutoretza-ekintzarako eta hezkuntza-orientazioa garatzeko irizpideak. 	Zuzendaritza eta klaustra	OOGak
Antolakuntza eta Jarduera-Araudia (AJA)	Ikastetxe baten antolamendua eta funtzionamendua arautzen duen dokumentua da. Honako alderdi hauek jasotzen ditu: hezkuntza-komunitateko sektoreek parte hartzeko bideak, bizikidetzaraudia, ikastetxearen antolaketa eta kudeaketa, baliabide eta material didaktikoak, komunikazioa eta informazioa, autobabes-plana.	Hezkuntza-komunitateko kideek osatutako batzorde bat	OOGak
Ikastetxearen Urteko Plana (IUP)	Urteko plangintza operatiboko dokumentu bat da, ikasturte baterako hartzen diren erabakiak jasotzen dituena. Bertan honako hauek zehazten dira: <ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza-komunitatearen beharrak eta nahiak. • Ikasturte honetan lortu nahi duguna, helburuak formulatuz eta espero den azken emaitza deskribatuz. • Zer egingo dugun nahi duguna lortzeko. Gainera, zehaztuko dugu nor (eragileak eta arduradunak) eta noiz. • Nola funtzionatuko dugun esaten duguna egiteko. • Proposatutako helburuak lortu ditugula egiaztatzeko jarraitu beharreko prozesua. <p>Ikastetxe osoa erakunde gisa inplikatzeko du, ikastetxe osoari eragiten dioten erabakiak jasotzen baititu.</p>	Hezkuntza-komunitateak	OOGak
Urteko memoria	Ikasturte bateko jardueraren datuak eta emaitzak jasotzen dituen dokumentua da, eta aldi horretan egindako jardura guztiei buruzkoa da.	Hezkuntza-komunitateak	OOGak
Ikastetxearen Elkarbizitza Plana	Elkarbizitza positiboa garatzeko hezkuntza-komunitatearen asmoak jaso eta ikastetxeko elkarbizitzaren diagnostikoan oinarritzen den dokumentu estrategikoa izan behar du. Elkarbizitza Plana bost ardatz hauen inguruan eratuko da: <ul style="list-style-type: none"> • Elkarbizitzaz ulertzen dugunari buruzko denon arteko hausnarketa. • Ikastetxeko elkarbizitza-planaren indarguneak eta hobetu beharreko alderdiak identifikatuko dituen diagnostikoa. • Izaera orokorreko helburuak finkatzea. • Elkarbizitza hobetzeko jarduerak diseinatu eta abiaraztea. • Burututako jardueren jarraipena eta ebaluazioa. 	Hezkuntza-komunitateak	OOGak



LEGERIA

Otsailaren 19ko 1/1993 Legea, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa.

Urriaren 2ko 40/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa.

Azaroaren 12ko 258/1996 Dekretua, ikastetxe publikoetako OOGa hautatzeko eta zatika berritzeko prozedura arautzekoa (EHAA 1996-11-15).

Urtarrilaren 30eko 11/2007 Dekretua, ikastetxe publikoetako OOGa hautatzeko eta zatika berritzeko prozedura arautzeko Dekretua moldatzeko (EHAA 2007-02-05).

Apirilaren 15eko 82/1986 Dekretua, OOGen osaketa eta funtzioak arautzekoa.

Irailaren 7ko 228/2010 Dekretua, ikastetxe publikoetako OOGan gurasoen ordezkariak izan beharreko gutxieneko ehunekoak arautzeko Dekretua moldatzeko (EHAA 2010-09-27).

Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretua, ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoa (EHAA 2008-12-16).

2020ko urriaren 1eko Ebazpena, Hezkuntza sailburuordearena, Antolamendu eta Jarduera-Araudia onarturik ez duten Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako Ordezkaritza Organo Gorenaren osiera ezartzen duena.



BIBLIOGRAFIA

-Mesa Sánchez, R. (2013). *Breve manual del consejero y consejera escolar*. CODAPA.

-Confederación González Anaya (2016). *Manual sobre consejos escolares*. Generalitat Valenciana.

-Consejo Escolar de Euskadi. *Guía para la participación en los consejos escolares*.

-Ayuntamiento de Rivas Vaciamadrid. *Guía del consejero y consejera escolar*

argitaratzailea:

ehige 

Euskal Herriko Ikasleen
Gurasoen Konfederazioa

laguntzailea:



HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN